

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko irailaren 7ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Foru dekretua:**

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 41/2021 Foru dekretua, irailaren 7koa. Patata, azukre erremolatxa eta behi aziendaren ustiategiak ekoizteko laguntzen aldi baterako araubidearen oinarri arautzaileak onestea, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EE) Erregelamenduan ezarritako minimis araubidearen babesean, bai eta laguntza horien 2021erako deialdia ere.

– **Erabakiak:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 507/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Behin betiko onestea Arratzua-Ubarrundiako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruaren mugaketa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 508/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Behin betiko onestea Berne-doko udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 509/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Behin betiko onestea Zambranako udalerrirako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzoruaren eta hiri ondasun higiezinaren balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 510/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Onestea aurrekontu aldaketarako zenbait espediente, "Euskampus-AEFAME Araba Talent hitzarmena" partida sortu berria funtsez hornitzeko, Diputatu Nagusiaren Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 511/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Onestea aurrekontu aldaketarako zenbait espediente, "Arabako balio zirkulua eta giza eskubideak" partida sortu berria funtsez hornitzeko, Diputatu Nagusiaren Sailak eskatuta.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 512/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Barron eta Osma kontzejuei ordaintzea, behin 2019ko kontuak aurkeztu ondoren, atxikitako 2.569,14 euro, Toki Erakundeak Finantzatzeko 2021eko Foru Funtsetik baitagozkie.

Foru Gobernu Kontseiluaren 513/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Onespina ematea atxikitzeari Abetxuku, Acebedo, Alaitza, Bóveda, Eskibel, Ginea, Markina eta Quintanillako kontzejuei 2020ko ekitaldiko Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren kontzeptuan dagozkien esleipen zenbatekoen ehuneko berrogeita hamar.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 514/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Onespina ematea lankidetzaren hitzarmena izenpetzeari UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatearekin, haurtzaroan esperientzia txarrak eta eskola uztea ikertzeko proiektua garatzeko.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 515/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Onespena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena berresteko Foru Arau Proiektuari, NBEF eta LGENG funtsen kargura finantzatutako zuzeneko laguntzen eta landa garapenerako neurrien kudeaketari lotutako jarduerak eskuordetzeari buruzkoa.